

LEZOKO BIBLIOTEKA IREKITA NAHI DUGU !

Lezoko munizipioa udal biblioteka publiko baten zerbitzu xumeetaz baliatzen zen 1973garren urtetik. Gaurregun eta igazko abenduaren haseratik, ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, biblioteka PUBLIKO hau bertara joan nahi lukeen guztiarentzat itxita aurkitzen da.

Beraz, biblioteka honek ez ditu biblioteka publiko baten helburua (mota guztietako irakurleeta arduratuz kultura herrikoia gehitu) eta eginkizunak (ikasleari ikasten dituen gaietaz inbestigatzen lagundu, eta haurrei irakurketa munduan barneratu) bertetzen.

Hain hutsune grabe eta justifika ezinak ikusirik, eskatu eta exigitzen diogu KULTUR batzordeari orokorki eta alkatesari konkretuki, Lezoko Biblioteka Publikoaren berehalako zabaldura. Eta gauzak horrela gertatuko ez balira, Lezoko herriari, txosten baten bidez bibliotekako ateak ez irekitzearen arrazoiak (izan ezkerro) ematea.

Liburuak armiarmasareen babesle bihurtu ez daitezzen Lezoko Biblioteka irekita nahi dugu !!!

ASKE aldizkaria